


EUSKAL LITERATURAZ GOZA!

IDAZLEAREKIN
SOLASALDIA



PROFETEN IRUZURRA, 2021. Amaiur Epher

Berrogei urte betetzearekin batera eman du argitara Maiatz elkarteak Amaiur Epher baxenafar gaztearen *opera prima*. Diabolo Kiwi musika-taldeko kide eta bi antzerki-testuren egile, lehen nobela du Epherrek *Profeten iruzurra* hau.

Alexander mutil gaztea da pertsonaia nagusia eta haren inguruan ardaizen da kontakizun osoa. Herritik kanpo, Frantziako hiri batean eta Madrilen eginak ditu ikasketak pertsonaiak, eta nobelaren hasieran Estatuko funtzionario gisa dihardu lanean hiri ertain batean, artxibozain, aldi batez historia museoan kudeaketaren arduradun izan ondoren. Familian gertatutako ezbehar batek eramango du atzera sorterrira, lana utzita. Bederatzi kapitulutan zehar, hainbat espazio geografiko eta sozial zeharkatzen ditu Alexanderrek: frantziar hiri ertaina eta lan-mundua, sorterrira eta familia-giroa zein lagunartea, Madril eta giro kultural-politikoak, kasu. Amaiera aldera sorterritik Iruñera egindako bidaiak, berriz, nobelari road-moviearen oihartzunak ekartzen dizkio, Jean Etxepare lagun.

Espazio horiek eta bertan bizitakoak (askotan anekdota baino ez direnak) aitzakia dira pertsonaiaren etengabeko digresioetarako, sexuaz, familia-arteko harremanaz, filosofiaz eta beste hainbat gairi buruz jarduteko. Gailendu egiten da, edonola ere, alderdi sozio-politiko eta ekonomikoaren inguruko gogoeta orriotan, izan ere eleberria pertsonaiaren begietatik gaur egungo Mendebaldeko gizartea irakurtzeko ahalegina da: neoliberalismoa, deslokalizazioa, kulturaren espektakularizazioa, asmo iraultzaileen ezina... Epherrek Alexanderren begiradatik eramaten ditu fikziora kritika horiek guztiak, umorez, ironiaz eta estilo landuz eraman ere.

2022/2023

Otsailaren 6ean

19:00etatik-20:00etara

IKASBIDE KULTUR ELKARTEAN

 **donostiakultura**

Edu Zabalak zuzendua